



- Sarrera
- Liburuko atalen sintesiak eta proposatutako jardueren jarraibideak
- Eranskina: Ikaslearen orriak
- Helbide elektronikoen aurkibidea



Sarrera

Hiru maila biltzen ditu EUSKARA MINTZAGAI egitasmoak:

- LIBURUA
- WEB AGERKARIA
- GELARAKO JARDUERAK

1 LIBURUA paperean.

Edizio itxurosoak, testuz, irudiz, argazkiz, mapez eta grafikoez osatuak. Gaia EUSKARA, bere luze-zabalean. Ikerlan monografikoak izango dira, gure hizkuntzaren alderdi eta adierazpide zehatzak aztertuko dituztenak. Tituluak argitaratu ahala sortutako oinarria trinkotuz joango da eta corpus ederra itxuratzerantz helduko da.

2 WEB agerkaria.

Liburuak agertu ahala testuak www.euskara.euskadi.net-en eskainiko dira. Paperezko edizioak *balio erantsi* batzuk izango ditu sarean: estekak tartekatu eta entzutezko, idatzizko eta bideoetarako loturak proposatuko dira, betiere gaiari eta edukiari kasu eginez. Loturak entziklopedia kutsukoak izango dira, sareko informazioa inplementatuz.

Euskara Mintzagai liburu bildumaren edukia aztertzeaz gain, atariak ***Euskara Mintzagai: usteak eta iritziak*** atala ere eskainiko du. Honetan gure hizkuntzaren gainean idazle eta pentsalari askok emandako iritziak biltzen dira: fitxek testuen laburpenak eta interneten kontsulta daitezkeen iturri horietara jotzeko bideak eskaintzen dituzte.

3 GELARAKO JARDUERAK

Liburuen tiradaren zati handienak ikastetxeetara eta euskaltegietara joko du. Argi dugu jasotzaile behinena zu zarela, irakaslea, zure bitartez helduko baitzaie ikasleei liburuen edukia. Apalean geratzeko arriskua hortxe dago; kontu hori gogoan, argitaratzeaz batera eta sarean eskaintzearekin bat, halako gelarako jarduera batzuk proposatu nahi izan ditugu. Interesatuak aukera izango du liburuotako edukiak modu batean edo bestean klasean lantzeko, osatzeko, bestela enfokatzeko, dena delakoa. Proposatutako lanketek web bertsioa dute oinarri eta PDF dokumentu batean aurkituko dituzu gure atarian, liburuaren bertsio elektronikoaren parean.

Interesik baduzu liburuxka hauetako edukia lantzeko, modu honetan jokatzeari aholkatzen dizugu.

- Ez da ikastunitate bat hona ekarritakoa, eta proposatzen diren jardueren segida ez da estu hartzekoa.
- Baliteke liburuotako pasarte jakinak landu nahi izatea edota osotasunean ekinda ere zuk zeuk bideratu nahi izatea bestelako heldulekuetara joaz. Ekin!
- Proposatutako jarduerak edukia ataza osagarrien bidez klasera eramateko aukera emango dizute. Atazok testuetako edukien aurreko, bitarteko eta osteko lanketarako balio dute.



- Ezaugarriak:
 - Ataza labur antzekoak. Proposatutako jarduera askok HABEk sortutako Dokutekako baliabideetara garamatzate. Horietatik abiatuta liburuetakako edukiekin bat egingo duten lanketak izango dituzu aukeran.
 - Elkarreragina sustatuko duten lanketak, trebetasunak (mintzamina, irakurmena, entzumena eta idazmena) batera lantzen saiatuko direnak
 - Euskara eta Euskal Herria gaien inguruan sakontzeko aukera emango dutenak
 - Ohiko ikaskuntza kurrikularraren barruan erraz moldatzekoak

Gure nahia da bilduma honen inguruan atondu ditugun baliabideak zuk ezagutzea, eta batez ere zure jardunean baliagarri gertatzea. Ez izan inongo zalantza edo erreparorik gugana jotzeko, edozertarako hemen izango gaituzu eta.



Liburuko atalen sintesiak eta proposatutako jardueren jarraibideak

1 EUSKAL HIZKUNTZAREN JATORRIAREN ENIGMA

SINTESIA: Euskal hizkuntzaren jatorriaren gaineko hipotesiek ez dute gaurdaino argitu inongo senidetasunik. Badira, berriz, argudio irmoagoak hizkuntzaren gaur arteko iraupenari buruz. Neolito garaian indoeuroparrak Europan zehar zabaltzen joan ziren eta aldi berean nekazaritza hedatzen. Basoak gutxitzen eta luberriak ugaritzen joan ziren. Garai hartako euskaldunak, Europako sartaldean bizi zirenak, ez ziren lar nahastu indoeuroparrekin, Euskal Herriko orografiak haiek ekarritako jardun ekonomikoari ez baitzion egokierarik ematen. Bakartze horrek hizkuntzari bizi irauteko aukera eman zion. Penintsulak Erromatarren kolonizazioa jasan zuen hurren. Euskal herriko kasuan ez zen erabateko izan eta Inperioak lur jotzean prozesua eten egin zen. Bakartzeak berriro ere hizkuntzari eusten lagundu zien euskaldunei. Irauteak ere zerikusi estua du hizkuntzaren beraren egiturarekin, inguruko aldean guztiz bestelakoa (Mitxelena).

A

**Hizkuntza txikien
desagerpena** 

B

Egin kontu

'So Ik So' diskoko kanta, OIHUKA
2004

**C Irakurri atala eta
ondorioak atera**

D Bidegileak

- Euskararen gertutasuna lagun, munduko hizkuntzen bilakaeraren inguruko hausnarra egitea.
- Hizkuntzaren lanketa: ehunekoak
- Formatu bereziko bilduma bateko irakurgaiak (**BIDEGILEAK**) ezagutaraztea eta lanketarako proposamena egitea.



A  Hizkuntza txikien desagerpena Dokuteka Entzungaiak 1288 2001/01/30 0:06:35



<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=26288>

Munduan zenbat hizkuntza dauden eta beraien desagerpena nola ari den gertatzen azaltzen du Unescorekin lanean ari den irakasleak. Euskara ere aipatzen du.

1 Jarri ikasleak talde txikian ondoren adituko dituztenak aldez aurretik komentatzeko.

Zenbat hizkuntza da munduan?

6000 edo

XXI. mendean munduko hizkuntzen % X desagertuko da

- Baikor ikusita _____ % 30 _____
- Ezkor ikusita _____ % 90 _____

Hizkuntzak aurrera egingo badu, irakastea beharrezkoa da?

Itxura batean bai, nahiz eta %30 ez da jada irakasten

Hizkuntza bat _____ desagertu da: egizu aukera.

- Hiru astean behin
- Bi asterik behin
- Lau astetik behin
- Astero bitan

Jardun ikasleekin batera molde hauen gainean (maiztasuna azaltzekoak) zalantzarik bada.

Bada modurik hizkuntza bat 42 hiztun soilek bizirik gordetzeko? Non gertatzen da halakorik?

Kolonbiako pisamirera du aipu elkarrizketatuak

Zerk eragiten du hizkuntzen heriotza?

Globalizazioa aipatu ohi da. Heriotza barik bilakaera da azken batean hizkuntza batek jasango duen desagertze aurreko fasea.

Zeintzuk dira zure ustean munduko hizkuntza zabalduenak?

- 1 Txinera
- 2 Ingelesa
- 3 Gaztelera

10 milioi hiztun baino gehiagoko hizkuntzak asko dira?

70 edo



Munduko hizkuntzen % 1ek populazioaren % 75i berba egiteko aukera ematen dio.

Elkarrizketa hau 2001eko urtarrilean emititu zuen Euskadi Irratiak. Gaurko egunera arte eta adituak azaldutakoa gogoan, zenbat hizkuntza desagertu da bitarte honetan? Egin kontu.

Sei urtean 300 aste baldin baditugu eta astean behin hizkuntza bat hilda, egin kontu; aste birik behin bada, 150.

GEHIAGO jakiteko:

<http://www.amarauna-languages.com>

2 Komenta itzazue talde handian ikasleek proposatutakoak eta ekin entzuteari. Erkatu erantzunak jatorrizko testuak esandakoarekin.

3 HIZKUNTZAREN LANKETA: audioan ehunekoak han eta hemen agertu dira. Entzun bigarrenez testua eta arreta jarri aipatuak diren ehunekoetan. Sakontzeko lagungarri honako helbide hau erabil dezakezu ikasleekin komentatzeko eta uneko zalantzak argitzeko:

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1087831918



B

Egin kontu

Erref.: 'So Ik So' diskoa, OIHUKA 2004

1 Proposatu ikasleei Ruper Ordorikaren 'Egin kontu (5700 kultura)' kanta klasera ekartzeko (So Ik So diskotik, OIHUKA 2004). Zuetako baten batek izango du. Komentatu ikasleekin zein izan daitekeen letraren atzean dagoen mezua.

Egin kontu
Bost mila zazpichun
kultura ezberdin
desagertu dira historian.
Esaten dutenez
aurrerabidea
elkar jan horretan
oinarritu da mendeetan zehar.
Beraz ez larritu
izan jakintsu
orpoa erakutsi
aurrerabideari.
Jarraitu egiozu
asko dakienari
behingoz utziozu
baldar izate horri.
Gabiltza hainbeste
nor gara gu
zer gara gu
euskotarrak gara gu
Ez dela egoki
egunak ematea



zilborrari begira
munduan zentroa bagina
Ez dela zilegi
insolidarioa ei da
traban ibiltzea
ezberdintasun kontuekin
Diru kontua dela
autokonplazentzia
atzerakoia
txokoan bizitzeko gogoia.
Gabiltza hainbeste
nor gara gu
zer gara gu
euskotarrak gara gu
Ez baita ahaztu behar
kultura guzti horiek
zirela traba hutsa
delako progreso horrentzat.
Ez baita ahaztu behar
bost mila kultura
desagertu horiek
ezin dira okerturik egon.

2 Esapideak: kantan bestela agertzen diren esapide hauek diktatu ikasleei jatorrizkoen modura ekartzeko eskatuz.

- Kontura zaitetz (**egin kontu**)
- Hortaz ez kezkatu (**beraz ez larritu**)
- Ez da bidezkoa (**ez da zilegi**)
- Kultura horiek guztiak traba besterik ez ziren (**kultura horiek guztiak traba hutsa ziren**)
- Etorkizuna deitzen dugun horrentzat (**delako progreso horrentzat**)
- Diruaren arazoa dela (**diru kontua dela**)



3 Kontu: zenbat adiera ematen diote ikasleek KONTU berbari? Hona HAUTA LANERAKO EUSKAL HIZTEGIAK dakarrena. Komentatu ikasleekin batera.

kontu. iz. (*1562, 1571; kondu 1545). **1. Kopuru baten zenbatze edo mugatzea.** Irabazien, galeren kontua. Kontu zehatza. Hutsen kontua laster egingo dut. Etxeparez geroz, silaben kontua izan da neurkeraren muina. Gramatika alorrean ilunpetan dauden auzien kontua ezin konta ahalakoa litzateke. Dendetan erdarara jotzen da askotan kontuetan. Hizkuntza horiek bi zirela, gutxieneko kontuan. Hor sartzen da kontuan, beste oztopoen gain, haren euskalkiaren auzia. Zure egunak konturik gabeak dira. Gauza guztien kontua duena. Bere bekatuen neurria bete arteino, kontua konpli arteino. || Kontu gabe adituko dira han zure laudoriozko kantak. Ik. **kontugabe.**

2. Irabazien edo xahutzeen kontua dakarren agiria. Jatetxeko kontua ordaindu. Jauna, bost erreal da berorren kontua. Hileko gastuen kontua. || Kontu-ikuskatzailea. || Aurrezki kutxa edo banku batean, pertsona baten zor-hartzekoen agiria. Kontu bat ireki aurrezki kutxan.

3. Arreta, ardura, arta. Gurasoen kontu onari ongi erantzunik. Kontu hobea dute gariak. Ikusten duzu, kristaua, zein kontu eta arreta handiarekin hilduratu behar den grina nagusiena? Kontu handia ipini behar dugu horretan. Mihiaz kontu edukitzea. Elizkizunetan laguntzeko eta behartsuen kontua edukitzea. Kontu izan edanean! || Gosaria mutilen kontura izango zela. Besteren kontura dabilena. Bere kontura lan egiten duena. || Ardi, behi kontu: ardiak, behiak zaintzen. Zer zabilta zu hemen, makila eta guzti?; ardi kontu, Bartolo, nahi banauzu ikusi. || Bereak, diot, ez besterenak; eta kontu, ez duzu esan behar nor lagun izan duzun bekatuan. Ik. **KONTUZ.** Kontu, kontu, ate zahar hori puskatu gabe. Kontu, gero!

4. Beh. Arazoa, auzia, egitekoa. Hori da kontua. Hori beste kontu bat da. Hori da beste kontua. Hori ez da nire kontua. Gure kontuak zuzentzeko ordua heldu da. Zeharo bat gatoz kontu horretan. Ez dela txantxetako kontua. Aspaldiko kontuak. Adin kontua da hori. Sorgin kontua dirudi. Itxura kontu hutsean ere alde gehiegi dago batetik bestera. Kontuak egiteko orduan izaten dira kontuak. || Apaiza sermoian bere kontuak esaten ari zela. Elkarrekin betiko kontuak esaten.

5. Beh. Ipuina. Berri eta kontu, ipuin 'ta kanta, golkoa dute betea.



C Irakurri atala eta ondorioak atera

Liburuaren lehen atala irakurri aurretik eskatu ikasleei zeintzuk arrazoi izan daitezkeen erabakigarri eta mesedegarri hizkuntza batek bizirik irauteko, kanpoko hizkuntza nagusien oldarrari aurre egiteko.

- Irakurri testua eta ondorioztatu zelan iraun duen bizirik euskarak.

D

Bidegileak bilduma ezagutarazteko eta erabiltzeko prozedura

- Gelaz kanpoko lantzat proposatu ikasleei Euskara Mintzagai bildumaren liburu honetako web bertsioan jarduteko, lehen atala berriro irakurtzeko eta dituen linkak aztertzeko.
- *Bidegileak* bildumaren berri eman. Zelako lanak diren, nor duten aztergai, zelan eskuratu... Lehenengo atal honetan Mitxelenaren gaineko *Bidegileak* bildumako testua dute eskura. Irakur dezatela beste barik, Koldo Mitxelena ezagut dezaten. Biharamunean komentatu denon artean Mitxelenaren inguruan ikasitakoa.
- 'Ikaslearen orriak' eranskinean datorren taula osatugabea banatu ikasleei. Etxean edo ordenagailu-gelan egin beharreko lana azaldu. Polixene Trabuduaren biografia aztertuko dute. Hiru laguneko taldeak osatu eta taulako informazio guneak euren artean banatuta, *Bidegileak* 24. karpetako Polixeneri eskainitako koadernoari (http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/24%20TRABUDUA.pdf) ekingo diote, nork falta duen informazioaren bila. Bukatutakoan elkarri jasotakoa kontatuko diote.
- Halako taulak, aldaketa txiki eginda, *Bidegileak* bildumako saileko biografiak lantzeko aukera emango digu.



Bidegileak bildumako liburuxkak lantzeko balio dezakeen irakurketarako tresna: Adibidea ilustratzeko paratu dugu.

	<i>Bidegileak</i> : 24 karpeta / <i>Polixene Trabudua</i> http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/24%20TRA_BUDUA.pdf
Jaio (noiz):	1912an
Jaio (non):	Txorierrin, Sondikan
Gurasoak eta gertuko familia:	Maria Arrizabalaga, jostuna Prudentzio Trabudua, igeltseroa Hirugarren umea zen Polixene, baina aurreko biak, mutilak, erditzean hilak Izenaren gaineko pasadizoa Giro abertzalerik ez
Hautzaroa:	Zazpi urterekin eskolan hasi (Sondikan) Hamar urterekin Bilbora egunero ikastera Matematikan txarra
Gaztaroa	Asuako <i>Jolasa</i> (igandeetako aisia) Motoan hurbildu ziren mutilak eta dantzan: Jose Mandaluniz ezagutu zuenekoak, Athleticeko jokalaria Bost urtez nobiotan Abertzaletasunaren hautua: bizi zuen giroak eraginda (Mendigoizaleak, Emakume Abertzale Batza, antzerkiak, 1932ko Aberri Eguna...)
Ikasketak:	Magisteritza
Zein lanetan jardun zuen:	Sondikako ikastolan andereño Euskara irakasle Bidebarrieta kaleko batzokian (Lauaxeta ezagutu zuenekoak) Hizlari politikoa gerra aurrean Idazlea: <i>Jagi-Jagi</i> aldizkarian... desobedientzia zibilaren aldekoa "Soy revolucionaria" 1934 Irakasle Venezuelen 1954tik aurrera Kazetari venezuelan (<i>Artículos de amama</i> eta <i>Crónicas de amama</i> liburuetan bilduta daude)
Familia:	1933an Jose Mandalunizekin ezkondu zen 1934: Eguzkiñe alaba jaio zen 1940 Naya jaio zen 1942 Maite jaio zen 1935: Joseba semea jaio zen Jose Espanyol taldera doa jokatzera
Euskararen zein arlotan nabarmendu zen:	Ikastolan andereño Hizlaria
Bizitza	1933an atxilotu eta kartzelara, hamabost egun barruan eta irteeran omenaldia



ezaugarritutakoak:	1936: Francoren altxamendua 1936: senarra gudari eta familia Gernikara. Bonbardaketaren lekuko. Sondikara berriro. Ihesa: Bilbo (Polixene eta semealabak) – Santander – Bordele – Issoudan – Baiona – Donibane Garazi (senarra lotu zitzaion familiari) – Rouen (Jose han ibili zen futbolari) – Bigarren Mundu Gerra: Biarritz (1940 Naya alabaz erditzera) – Rouen (1942 maite jaio zen) – Paris – Britainia (Jose futbolearen aritzera, 1950 arte) – Bilbo – Egokitu ez eta berriro Rouenera – Ameriketara: Venezuela 1954 Zeberiora itzuli zen eta 2004an hil egin zen
Kontu xebreak:	
Internetek zer diogure pertsoniaz: <i>bila ezazu interneten eta ekarri hona interesgarri begitandu zaizkizun loturak</i>	http://www.ahoaweb.org/bilduma.php?col=7 <i>Polixene Trabudua Bilduma</i> AUDIOA. Polixene entzuteko aukera (gazteleraz bada ere) http://www.euskonews.com/0264zbk/gaia26403es.html <i>A la memoria de Polixene Trabudua. Miren LLona</i> Gazteleraz



2 EUSKARA EUROPAKO HIZKUNTZEN SAILKAPEN BARRUAN

SINTESIA: Hizkuntzak sailkatzea eta berauen arteko senidetasunak ezartzea hizkuntzalaritzaren kezka izan da betidanik, harreman horiek zuhaitz genealogiko baten modura irudikatuta. Hizkuntzen arteko lotura eta kidetasunak bestela ere aztertu ahal dira: odoleko senide izan barik, auzo izatetik sortutako harremanaren bidez esaterako. Eta bestetik ere urruneko ahaidetasunak azaldu ahal du kidetasuna, enbor beretik sortu baina denborak ezaugarriak lausotu dituen hizkuntzen kasua. Hizkuntzen egungo egoeraren azterketatik hasita eta denboran atzera eginez jatorrizko protoindoeuroparra nolakoa zen jakitea ere hizkuntzalarien ametsa izan da. Baina une batean, dokumentazio idatziaren faltaz ezin xedea lortu. Indoeuropar uholdearen ondoren, beronen enborreko hizkuntza familiak gertatu dira nagusi. Aurreko hondarrak hauexek dira: etruriera (hilda), iberiera (hilda), fino-ugriar adarra eta euskara.



3 EUSKARAREN BANAKOTASUNA

SINTESIA: Hizkuntzek bizirik irauteko anean uneko egoerari, eraginei eta eraldaketei egokitzapena ematen jakin behar dute. Horra euskararen bilakaera erromanizazioak iraun zuen bitartean. Jatorria argitze aldera hainbat saio egin dira. Gramatika-egiturei erreparatuta ez da loturarik egin. Lexikoa gogoan zenbaitek iberierarekiko antzekotasunak ikusi dituzte, baina baliteke gertutasunak edo mailegutzak eragindakoak izan eta ez jatorri komun batek. Beste leku batzuetara ere begiratu da arbasoen bila, Eurasiara hain zuzen ere. Ondorioak antzekoak, ezer garbirik ez. Hizkuntzaz bestera giza taldeen biologia ere aztertua izan da eta euskaldunak Europako biztanle zaharretakoak direla ondorioztatu da (Cavalli-Sforza); beraz gure hizkuntza ere zaharretakoa litzateke.

A
Swadesh zerrenda

B
Geneak, herriak eta hizkuntzak

- Hizkuntzen arteko ahaidetasunak nola ikertu diren jakitea: Morris Swashe eta Cavalli-Sforza. Testuak iradoki baina landu ez dituen bi ikertzaile hauen ekarpenak aztergai izango ditugu.



A Swadesh zerrenda

1 Irakurri ikasleekin batera ondoko testu hau

Zertan den



Swadesh zerrenda oinarrizko berbak biltzen dituen zerrenda bat da (207 berba bertsio luzeenean), **Morris Swadesh** (1909-1967) hizkuntzalariak paratu zuena. Harremana ei duten bi edo hizkuntza gehiagoren arteko alderatzea ahalbideratzen du, euren arteko lotura denboran zehar nolakoa izan den balioetsiz. Hizkuntzalaritza konparatiboaren, [glotokronologiaren](#) eta hizkuntzalaritza estatistikoaren tresnetako bat da.

Erkaketa horrek antzekotasunak agerian lagako ditu, beti ere erabilitako erreperitorioak fidatzeko inferentziak eragiten baditu. Hori berori izan zen Swadeshen kezka nagusia zerrenda proposatu zuenean. Denborak baino kontrolpean ez dauden hainbat eraldaketak gauzatu ohi dute hizkuntza baten lexikoaren bilakaera. Kulturazko arrazoiek eragiten dituzte transformazio horiek: teknologiaren hedapenak, politikak bultzatutako aldiak aldiko dinamikek eta harreman ekonomikoek.

Swadeshen zerrendak arrazoibide hau zuen sustraizko: *Oinarrizko Hiztegi* bat bada, berbategi egonkor bat, kultur aldaketek itxuraldatuko ez dutena. Beraz zerrenda horrek kanpo utzi behar zituen kulturazko konzeptuak eta baliozkoa behar zuen izan edozein lekutarako eta hizkuntzatarako. Adibidez *elur* berbak ez du baliorik izango Afrika erdialdeko hizkuntza tropikalak alderatzeko, ezta *telebista* hitzak greko klasikoa eta modernoa eratzeko ere.

Aukeratutako berbak edozein kulturatan ezagunak dira (hona adibideak: *ura*, *harria*, *emakumea*,...). Kanpoko mailegu batek nekez ordezkaturiko ditu, hain dira oinarrizkoak.

2 Antolatu ikasleak hirunakako taldetan eta eginkizuna azaldu: proposatuko dituzten hitzak euskaraz eta ingelesez emango dituzte (ea zer nolako maila erakusten duten).

- **Morris Swadesh**en zerrenda hori zein berbak osatzen duten asmatzen saiatuko zarete. Swadeshen jatorrizko zerrenda ingelesez dator. Beraz lan bikoitza aurrean duzuen. Bost minutuan 25 berba asmatzen saiatuko zarete, euskarazkoa eta ingelesezkoa proposatuz. Ea zein taldek puntu gehien lortzen duen (asmatutako berba bakoitzeko puntu bat). Gogoan izan testuan jasotako azalpena, hau da, zerrenda-gai izateko hitzak bete behar dituen ezaugarriak.

**3 Txapelketaren emaitzak egiaztatzeko aztertu zerrenda osoa:**http://eu.wikipedia.org/wiki/Swadesh_zerrenda**Swadesh zerrenda**

Hona 207 itemek osatutako zerrenda, euskarazkoa eta ingelesezkoa lagun.

1	I	ni	105	to smell	usain(a) hartu
2	you	zu, hi	106	to fear	beldur izan
3	he	hura / bera	107	to sleep	lo egin
4	we	gu	108	to live	bizi izan
5	you	zuek	109	to die	hil
6	they	haiek	110	to kill	hil, akabatu
7	this	hau	111	to fight	borroka egin
8	that	hori, hura	112	to hunt	ehizatu
9	here	hemen	113	to hit	jo
10	there	hor	114	to cut	ebaki,moztu
11	who	nor	115	to split	zaitu, pitzatu
12	what	zer	116	to stab	sastatu
13	where	non	117	to scratch	hazka egin, urratu
14	when	noiz	118	to dig	aitzurtu, zulatu
15	how	nola, zelan	119	to swim	igeri egin
16	not	ez	120	to fly	hegan egin
17	all	guzti	121	to walk	ibili
18	many	asko	122	to come	etorri
19	some	batzuk, zenbait	123	to lie	etzan
20	few	gutxi	124	to sit	eseri
21	other	beste	125	to stand	zutitu
22	one	bat	126	to turn	biratu
23	two	bi	127	to fall	erori
24	three	hiru	128	to give	eman
25	four	lau	129	to hold	hartu
26	five	bost	130	to squeeze	estutu
27	big	handi	131	to rub	igurtzi
28	long	luze	132	to wash	garbitu, ikuzi
29	wide	zabal	133	to wipe	garbitu
30	thick	lodi	134	to pull	tiratu
31	heavy	astun	135	to push	bultzatu
32	small	txiki	136	to throw	bota, egotzi



33	short	labur	137	to tie	lotu
34	narrow	mehe, estu, mehar	138	to sew	josi
35	thin	argal	139	to count	zenbatu
36	woman	emakume	140	to say	esan
37	man	gizon	141	to sing	abestu, kantatu
38	man	gizaki	142	to play	jokatu, jolastu
39	child	haur, ume	143	to float	flotatu, ur gainean egon
40	wife	emazte	144	to flow	isuri
41	husband	senar	145	to freeze	izoztu
42	mother	ama	146	to swell	hanpatu
43	father	aita	147	sun	eguzki
44	animal	animalia, abere, pizti	148	moon	ilargi
45	fish	arrain	149	star	izar
46	bird	txori	150	water	ur
47	dog	txakur	151	to rain	euria egin
48	louse	zorri	152	river	ibai
49	snake	suge	153	lake	aintzira, laku
50	worm	har	154	sea	itsaso
51	tree	zuhaitz, arbola	155	salt	gatz
52	forest	zuhaizti, oihan	156	stone	harri
53	stick	makil	157	sand	harea
54	fruit	fruitu, zitu	158	dust	hautz
55	seed	hazi	159	earth	lur
56	leaf	hosto	160	cloud	hodei
57	root	sustrai, erro	161	fog	laino
58	bark	enbor	162	sky	zeru
59	flower	lore	163	wind	haize
60	grass	belar	164	snow	elur
61	rope	soka	165	ice	izotz
62	skin	larru	166	smoke	erre
63	meat	haragi, okela	167	fire	su
64	blood	odol	168	ashes	errauts
65	bone	hezur	169	to burn	erre
66	fat	gantz	170	road	bide
67	egg	arrautza	171	mountain	mendi
68	horn	adar	172	red	gorri
69	tail	buztan	173	green	berde, orlegi
70	feather	luma	174	yellow	hori
71	hair	ile	175	white	zuri
72	head	buru	176	black	beltz



73	ear	belarri	177	night	gau
74	eye	begi	178	day	egun
75	nose	sudur	179	year	urte
76	mouth	aho	180	warm	bero
77	tooth	hagin,hortz	181	cold	hotz
78	tongue	mihi	182	full	bete
79	fingernail	azazkal	183	new	berri
80	foot	oin	184	old	zahar
81	leg	hanka,zango	185	good	on
82	knee	belaun	186	bad	txar
83	hand	esku	187	rotten	ustel
84	wing	hego	188	dirty	zikin
85	belly	sabel	189	straight	zuzen
86	guts	erraiak	190	round	biribil
87	neck	lepo	191	sharp	zorrotz
88	back	bizkar	192	dull	kamuts
89	breast	bular, uगत	193	smooth	leun
90	heart	bihotz	194	wet	busti, heze
91	liver	gibel	195	dry	lehor, siku
92	to drink	edan	196	right	zuzen
93	to eat	jan	197	near	gertu
94	to bite	hozka egin, kosk egin	198	far	urruti, urrun
95	to suck	zurrupatu	199	right	eskuin, eskubi
96	to spit	txistu egin	200	left	ezker
97	to vomit	oka egin	201	at	-(e)an
98	to blow	putz egin	202	in	-(e)an
99	to breathe	arnasa hartu	203	with	-(r)ekin
100	to laugh	barre egin	204	and	eta
101	to see	ikusi	205	if	ba-
102	to hear	entzun	206	because	-elako
103	to know	jakin	207	name	izen
104	to think	pentsatu, oldoztu			



4 Jardun ikasleekin batera ondoko jardueran:

- Antzinako pentsaeraren adierazpide den zerrenda honetan kategoria asko eta asko biltzen direla ohartu ahal gara: adibiderako familia harremanak adierazten dituzten berbak, edota anatomiarekin zerikusia dutenak. Gaikako irizpidez bestera, hizkuntzari ere erreparatu ahal diogu: aditzei kasu. Saiatu ahalik eta kategoria gehien zerrendatzen, antzinako mundu hori hobeto ezagutzeko.

5 Luzapena:

http://en.wiktionary.org/wiki/Category:Swadesh_lists

Helbide honetan mundu zabaleko hizkuntzen 'Swadesh' zerrenda asko eta asko daude. Proposatu ikasleei euskarazkoa gogoan edozein zerrendarekin alderatzeko, ea inongo loturarik asmatzen duten: adibidez, georgierazkoa helbide honetan da:

http://en.wiktionary.org/wiki/Transwiki:Georgian_language/Swadesh_list



B

Geneak, herriak eta hizkuntzak

http://www.euskara.euskadi.net/AVComun/r01gBideoak/r01redirVideo.html?r01video=contenidos/informacion/eu_mintzagai_bilduma_eugeo/eu_eu_geo/adjuntos/geneak.wmv

Ikasleek binaka lan eginda testua entzundakoan ahoz berreraikitzeari ekingo diote, proposatutako terminoak lagun. Bigarren entzunaldi batean binaka kontrastatutakoa konfirmatuko dute. Azkenik, denon artean komentatu Cavalli-Sforzaren ekarpena zertan den.

- Entzun arretaz 'Geneak' deritzon grabazioa eta saiatu ezaugarritzen Cavalli-Sforzaren ekarpena. Laguntzarako erabili ondoko irizpideak:





4 BESTEENA HARTU NORBEREA GALDU BARIK

<p>SINTESIA: Hizkuntza 'nahastua' da euskara, erraz beregandu ditu besteetako elementuak: lexikoan, morfologian, sintaxian eta esamoduetan. Baina euskarak ere auzo hizkuntzak eragin zituen, apalago bada ere (erromantzeen fonetikan kasu). Latinaren eragina berdintsua izan zen Pirinioen alde bietara. Erromantzeenek, berriz, tokian-tokian eragin jakinak sortu zituzten.</p>		
---	--	--



5 EUSKARA BAT ALA GEHIAGO

SINTESIA: Euskalkiak egonik, sorreran hizkuntza bakarra zen ala euskara bi edo gehiago ziren? Iritzi batek bi zirela dio: sartaldeko euskara eta erdi aldekoa. Mitxelenak, ordea, hizkuntza bakarraren hautua egiten du, euskalki horien baitan komuneko osagai trinko eta esanguratsuak daudela arrazoituta: *“Hizkuntzaren ertzetan gorde dira formarik zaharrenak, erdialdean berrikuntza gehiago izan den bitartean”*.

A



Arratsaldekoa

- Euskara idatzi eta ahozkoaren arteko aldeaz ohartzea



A



Arratsaldekoa

Dokuteka Entzungenaiak

/ 4075 / 2003/10/24 0:00:37

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=29075>



Iragarkia. Euskara idatzia eta ahozkoaren arteko aldea. Dokumentu honetan, irratsaioaren izena behin eta berriro errepikatuko dute, baina nork bere euskaran.

- **Jarri ikasleak hirunaka edo. Ondokoak komentatu:**
 - Zer da hizkuntza estandarra? Beharrezkoa ote? Zertarako?
 - Zerk egiten ditu berezi euskalkiak?
 - Euskalkia ala euskara batua? Zein noiz eta zertarako?

- **Idatzi arbelean ondoko berba: ARRATSALDEKOA. Eskatu ikasleei irakurtzeko. Euren euskarak, edonolakoa izanik ere, modu horretan adierazten du?**

- **Entzun grabazioa eta jaso ditzatela ahoskatze-modu guztiak.**

- **Osteko komentarioak: aniztasun horrek aberatsago egiten du euskara? Estandarra lehenetsi behar dugu?**

<http://www.argia.com/mendea/hemero/83king.htm>



6 BESTE HIZKUNTZEKIN USTEZKO SENIDETASUNAK

SINTESIA: Iberiera eta kaukasiar hizkuntzak dira euskarari bilatu zaizkion senidetasunak. Euskaliberismoaz bi planteamendu jorratu dira. Lehenak euskara erromatarrak etorri aurretik Hispania osoan mintzatzen zen hizkuntza zela proposatzen du; bigarrenak, iberiera eta euskara hizkuntza bera zela dio. Garaian garaiko konnotazio politikoak izango dituzte aldean bi jarrerok. Lexikoan eta toponimian bilatuko dituzte euren argudioetarako frogak.

Bestetik tipologiaren aldetik euskara eta kaukasiar hizkuntzak mota berekoak izan zitezkeela ere proposatu du zenbaitek, fonetika, lexiko eta morfologia aldetiko hainbat paralelismo gogoan.

Europako beste hizkuntza zahar batzuekin euskara lotzen saiatu dena ere bada: berberea, guantxera...

A Euskaldunak eta Babel

- Babelgo mitoarekin eta orokorrago Biblian azaltzen diren mitoekin euskaldunak egin dituzten interpretazio bitxiak azaltzen ditu Ramon Artano historiagileak.



A



Euskaldunak eta Babel

Dokuteka Entzungaiak

2026 2001/10/23 0:07:22

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=27026>

Babelgo mitoarekin eta orokorrago Biblian azaltzen diren mitoekin euskaldunak egin dituzten interpretazio bitxiak azaltzen ditu Ramon Artano historiagileak.

- **Jardun ikasleekin ondoko eginkizunetan:**
- Juan de Perochequik 1760an argitara eman zuen *Origen de la nación vascongada y su lengua* eta Aita Larramendiren ekarpenak ditu hizpide Ramon Artanok elkarrizketa honetan, euskararen jatorriaren inguruan haiek azaldutakoak hain zuzen ere.
- Entzun ahala jaso zertan diren bi idazle horien jarrerak eta bereziki Perochequik honako berba hauen inguruan proposatutako interpretazioak. Entzun aurretik egin, dena den, zure hipotesia:
 - ⌘ Euskara
 - ⌘ Languedoc
 - ⌘ Tuter / Tudela
 - ⌘ Asia



7 EUSKARAREN ANTZINAKO HEDADURA TOPONIMIA ETA ARKEOLOGIAREN ARGITAN

SINTESIA:

AKITANIA: Pirinioez iparraldera Akitanian euskararen aztarren zaharrak aurkitu dira. Ontzat ematen da akietaniera aldi zaharreko euskara dela, edo behintzat, euskarari hertsiki loturiko hizkuntza. Eta horren froga dira Akitanian aurkitutako inskripzio zaharrak, latinaren garaiko euskal izenak.

PIRINEOA: alde bietara dira aztarnak: toponimia eta izkribu zaharretako lekukotasunak, ohiturak (subilaroa, premu oinordekotza...), kidesun biologikoak, megalitoak, ikur eta ikonografia, mitologia. Hegoalderantz muga zehaztea zaila da, eta erdialdean eragina handiagoa da ekialdean baino.

EBRO IBAIAREN INGURUAN: Errioxako beroiekin egingo zuten muga euskaldunek. Calagurris baskoia zelako ustea dago. Autrigoiak Burgos aldera zabaldu ei ziren; baita Kantabria aldera ere.



8 EUSKARAK JASAN DITUEN ERAGINAK

SINTESIA:

ZELTEN ERAGINA: Auzo izan ziren, eta zenbait alditan etorri ziren KA I. milurtekoan. Zenbat ziren eta zer harreman izan zuten ez dakigu. Burdinaren langintza eta hainbat sineste ekarri ei zituzten gurera, eta toponimian, inskripzioetan ageri dira zenbait lekukotasun. Euskararen baitan eragina lausoa da eta baliteke zuzena ez izatea.

LATINAREN ERAGINA: Batez ere Hegoaldeak jasango du erromanizazio sakona (KA I. mendetik IV. mendera arte). Euskara hobeto gorde zen mendialdean (saltus vasconum) lautadan baino (ager vasconum), orografiak eta ekonomiak arrazoituta. Euskara ez zen, dena den, desagertu lautadetan eta erromatar inperioaren gorabeherekin lurraldeak irabazi zituen hegoaldean. Zorionez erromanizazio prozesuak ez zuen behar beste iraun osa izateraino. Kristautze prozesuak (IV. mendetik aurrera) latina zabaltzen lagundu zuen. Hedapena modu askotan gauzatu zen, beti ere hurrenkera batean: konkista militarra, administrazioaren eratzea, komunikabide sareen antolaketa eta merkataritza harremanak. Hitz maileguez gaika eragin zuten: lege eta administrazioa, kontzeptu abstraktuak, merkataritza, irakaskuntza, janzkera, tresneria, nekazaritza, etxegintza, jan-edana, mitologia, denbora, dotrina. Eratorkuntzan ere eragina nabaria da: -tu aditzen atzizkian... geroxeagokoa da morfosintaxiari eragindakoa (erromaniko berantiarrekoa, Mitxelena). Honek guztiak euskararen asimilizazio-ahalmena erakusten du, eta bidenabar bizirik irauteko eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna. Ha-ta-guzti ere hizkuntzaren funtsezko egiturek bere hartan dira.

BESTE ERAGIN BATZUK: Arabiarrarena lexikora mugatzen da; hainbat berba ere germaniar jatorrikoak dira.

A

Euskara eta latina

- Zein arlotan eragin dio latinak euskarari?



A

Euskara eta latina

- **Latinetik jasotako alderdi lexikala dela eta, egin ikasleekin batera ondoko lanketatxoak. Zuzenketarako jo liburuko atalera, ikasleek sortu zerrendak hangoekin alderatzeko.**
- Argi dago latinak sakon eragin ziola euskarari, batez ere hiztegian. Eta lekuko egun bizirik ditugun latinetik eratorritako maileguak. Egiozu une batean: zenbat berba datorkizu gogora latinetik etorriak direlakoan? Adib.: LEGE...
- Jarraian, eman dituzuen horiek gaika sailkatzen saiatu. Hona irizpideak:

Lege eta administrazioa	Kontzeptu abstraktuak	Merkataritza	Irakaskuntza
Janzkera	Tresneria	Nekazaritza	Etxegintza
Jan-edana	Mitologia	Denbora-kontzeptuak	Dotrina



9 ERROMANTZE-HIZKUNTZEN ERAGINA

<p>SINTESIA: Erromatarrek latinaren lekua bete zuten eta batzuek beste batzuek baino estatus hobea lortu zuten, botere politikoaren babesarekin izan zuten neurrian. Hor dira gaztelania, nafar-aragoiera, proventzala eta horren aldaerak eta frantsesa. Eragin etengabea jardungo dute, bai lexikoan, bai morfosintaxian.</p>		
--	--	--



10 DIALEKTOAK EDO EUSKALKIAK

SINTESIA: Euskara dialektoetan banaturik azaldu da. Idatzirako batasun prozesuak geldiro-geldiro auzatu ziren, eta hauek dira dialekto literario klasiko ezagunenak: lapurtera, zuberera, Bizkai euskara, gipuzkera eta nafar-euskara. Luis Luziano Bonapartek XIX. mendean zehatzago eta metodologia bat erabiliz deskribatu zituen euskalkiak, zortzi bereiziz. Azkuek zazpita ekarri zituen: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera, baxenafarrera, goi-nafarrera, zuberera eta erronkaria. Artean ahozko ereduak aztertu zituzten.

Euskara osoaren batasun prozesua, egun indarrean dirauena, 1918 jarri zen abian eta 1968an gauzatu. Euskalkien eta antzinako euskal leinu zaharren arteko parekotasuna handia da, lurralde historikoekin dagoena baino handiagoa.

A

 **Euskalkien mapa berria**

- K. Zuazo hizkuntzalariak euskalkien mapa berria egin du. Irratsaio honetan euskalkien mugak azaltzen ditu. Hainbat euskalkietako pasarteak ere entzun daitezke.



A

Euskalkien mapa berria



Euskalkien mapa berria **Dokuteka Entzungaiak** 5731 2004/12/01 0:07:37


<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=30731>

K. Zuazo hizkuntzalariak euskalkien mapa berria egin du. Irratsaio honetan euskalkien mugak azaltzen ditu. Hainbat euskalkietako pasarteak ere entzun daitezke.

- Ekarri gogora ikasleekin batera Euskal Herriko lurraldeak zeintzuk diren, eta arbelean marrazteko esan klaseko edozeini.
- Mapa aurrean saia daitezela liburuak eskainitako informazioa gogoan mapa marrazten
- Marraz dezatela mapa berria. Orain Koldo Zuazori egindako elkarizketa entzun dezatela eta egokitzapena irudi bihur dezatela.

Sakontzeko:

http://www.hiru.com/euskara/euskara_00650.html





11 EUSKARAREN LEKUKOTASUNAK ERDI AROAN

SINTESIA: Erdi Aroan euskararen eremua zabalagoa zen, batez ere ekialdetik, iparraldetik eta hegoaldeetik. Hor dira lorratzak: Errioxako glosak, Donejakueko erromesbiderako gida, Nafarroako Foru Orokorra eta agiritegia. Aztarna zaharragoak Iruña-Veleiako aurkikuntzak dira (2006).

--	--



12 LEKUKOTASUN HISTORIKOAK EUSKARAREN GEOGRAFIA BATERAKO

<p>SINTESIA: Toponimia dugu euskararen hedadura ezagutzeko bide ziurrenetakoa. Goitzen edo gaitzizenek ere bidea erakusten dute. Atalez atal Nafarroako erresumako toponimia, Arabako herrialdekoa, Errioxakoa, Burgoskoa eta Enkarterrikoa aztergai da.</p>		
---	--	--



13 EUSKALDUNAK ERBESTEAN

SINTESIA: Euskaldunak aspaldian ibili dira mundu zabalean lanean zein lan bila. Eta han hemen euren toponimian aztarnak laga dituzte: Labrador Penintsulan, Ternuan, Mexikon, Oregonen... Fluxua, euskal jendearena, XIX. mendetik aurrera etengabekoa izan zen eta euskaldunak euskarari eutsi zioten askotan.

A Euskararen oinarritutako pidgin hizkuntzak

- Itziar Laka hizkuntzalariaren azalpenak pidgin hizkuntzen inguruan. Euskara bera ere horrela erabili izan omen zen garai batzutan, arrantzaleek eta merkatariek erabilitako pidgin horren arrasto batzuk gorde izan dira. Horien adibide batzuk ere ematen ditu.



A

 Euskararen oinarritutako pidgin hizkuntzak



Euskararen oinarritutako pidgin hizkuntzak Dokuteka Entzungaiak 294558 2006/04/27 00:13:18

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=294558>

Itziar Laka hizkuntzalariaren azalpenak pidgin hizkuntzen inguruan. Euskara bera ere horrela erabili izan omen zen garai batzutan, arrantzaleek eta merkatariek erabilitako pidgin horren arrasto batzuk gorde izan dira. Horien adibide batzuk ere ematen ditu.

- Entzungai honek ia ordu laurdena dirau. Klasean berorren lehenengo hiru minutuak landuko ditugu. Tarte horretan Itziar Lakak pidginaren deskribapena egiten du, adibidez hornitua. Hurren bi parte bereizi ahal dira: batetik euskaldunak Islandian arrantzan ibili zirenekoan sortu zuten pidginari buruzkoa eta, bestetik, Ternura inguratu zirenean han sortu zuten hizkuntza-harremanaren gainekoa.
- Klasean entzun beharrekua grabaketaren lehenengo hiru minutuak dira. Aldez aurretik proposatutako eginkizunak egin.
- Etxean ikasleek grabaketaren gainontzekoa etxean landuko dute, aipatuak diren bi kasuak (Islandiakoa eta Ternukoa). Eginkizuna Itziar Lakak ematen dituen adibideak jasotzea da.

Komentatu ondoko hauek grabazioa entzun aurretik:

- Non ibili gara euskaldunok mundu zabalean?
- Euskara Euskal Herria ez den beste inon hitz egin da edo hitz egiten da?
- Antzerki saioa duzue. Ondoko egoerak antzeztu talde txikian:
 - Tarzan eta Jane zarete. Zer bazkaldu gaurkoan erabaki behar duzue.
 - Hiru urteko ume txikia da zuetako bat. Gurasoekin berbetan da eta haiek oparia egitea nahi du.
 - Atzerrian zaudete, Polonian kasu, eta denda batean zer edo zer erosi nahi duzue.



14 EUSKARA NORMALIZAZIO BIDEAN

<p>SINTESIA: Herri erakundeetan gaztelania eta frantsesa izan dira hizkuntza ofizialak azken mendeotan. XIX. mendearen amaiera aldean saioak egonik ere (hegoaldeko aldundien hainbat ekimen) emaitzak urriak izan dira. Elizak XVIII eta XIX. mendeetan herri euskaldunetan euskaraz jardun zuen. XX. mendean Pizkundea gauzatuko da eta Gerra Zibilera heldu bitartean ekimen askok egingo du aurrera. Monarkiaren berrezartzearen ondotik Euskal Herriaren egitura politikoa BI administraziotan banatua agertuko da Hegoaodean, eta Frantzian Pirinioetako Departamentuaren barruan ezarriko dira euskal lurak; horren arabera egituratzeak euskararen egungo egoera zehaztuko du, tokian-tokian berezia.</p>		
--	--	--



EUSKARA MINTZAGAI

EUSKARAREN GEOGRAFIA HISTORIKOA
GELARAKO JARDUERAK

ERANSKINA

IKASLEAREN ORRIAK



1 EUSKAL HIZKUNTZAREN JATORRIAREN ENIGMA

A  Hizkuntza txikien desagertzea Dokuteka Entzungaiak 1288 2001/01/30 0:06:35



Munduan zenbat hizkuntza dauden eta beraien desagertzea nola ari den gertatzen azaltzen du Unescorekin lanean ari den irakasleak. Euskara ere aipatzen du.

1 Komentatu ondokoak zure lagunekin.

Zenbat hizkuntza da munduan?

XXI. mendean munduko hizkuntzen % X desagertuko da

- Baikor ikusita _____
- Ezkor ikusita _____

Hizkuntzak aurrera egingo badu, irakastea beharrezkoa da?

Hizkuntza bat _____ desagertu da: egizu aukera.

- Hiru astean behin
- Bi asterik behin
- Lau astetik behin
- Astero bitan

Bada modurik hizkuntza bat 42 hiztun soilek bizirik gordetzeko? Non gertatzen da halakorik?

Zerk eragiten du hizkuntzen heriotza?

Zeintzuk dira zure ustean munduko hizkuntza zabalduenak?

- 1 _____
- 2 _____
- 3 _____

10 milioi hiztun baino gehiagoko hizkuntzak asko dira?



Munduko hizkuntzen % 1ek populazioaren % _____ berba egiteko aukera ematen dio.

Elkarrizketa hau 2001eko urtarrilean emititu zuen Euskadi Irratiak. Gaurko egunera arte eta adituak azaldutakoa gogoan, zenbat hizkuntza desagertu da bitarte honetan? Egin kontu.

GEHIAGO jakiteko:

<http://www.amarauna-languages.com>

2 Entzun orain adi. Erkatu aurretiaz komentatutakoa entzundakoarekin.

3 Audioan ehunekoak han eta hemen agertu dira. Entzun bigarrenez testua eta arreta jarri aipatuak diren ehunekoetan. Sakontzeko lagungarri honako helbide hau erabil dezakezu.


http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1087831918

**B****Egin kontu**

Erref.: 'So Ik So' diskoa, OIHUKA 2004

1 Zein izan daiteke letraren atzean dagoen mezua?

Egin kontu
 Bost mila zazpichun
 kultura ezberdin
 desagertu dira historian.
 Esaten dutenez
 aurrerabidea
 elkar jan horretan
 oinarritu da mendeetan zehar.
 Beraz ez larritu
 izan jakintsu
 orpoa erakutsi
 aurrerabideari.
 Jarraitu egiozu
 asko dakienari
 behingoz utziozu
 baldar izate horri.
 Gabiltza hainbeste
 nor gara gu
 zer gara gu
 euskotarrak gara gu
 Ez dela egoki
 egunak ematea



ziborrari begira
 munduan zentroa bagina
 Ez dela zilegi
 insolidarioa ei da
 traban ibiltzea
 ezberdintasun kontuekin
 Diru kontua dela
 autokonplazentzia
 atzerakoia
 txokoan bizitzeko gogoia.
 Gabiltza hainbeste
 nor gara gu
 zer gara gu
 euskotarrak gara gu
 Ez baita ahaztu behar
 kultura guzti horiek
 zirela traba hutsa
 delako progreso horrentzat.
 Ez baita ahaztu behar
 bost mila kultura
 desagertu horiek
 ezin dira okerturik egon.

C Irakurri atala eta ondorioak atara

Liburuaren lehen atala irakurri aurretik egin kontu: zein arrazoi izan daitezke erabakigarri eta mesedegarri hizkuntza batek bizirik irauteko, kanpoko hizkuntza nagusien oldarrari aurre egiteko?

- Irakurri testua eta ondorioztatu zelan iraun duen bizirik euskarak.



D

***Bidegileak* bilduma ezagutarazteko eta erabiltzeko prozedura**

- Gelaz kanpoko lana duzu hau. Jardun eta aztertu web bertsioan datorren liburuko lehen atala.
- *Bidegileak* bilduma ezaguna duzu? Entzun irakasleari. Lehenengo atal honetan Mitxelenaren gaineko *Bidegileak* bildumako testua duzu eskura. Irakurri Koldo Mitxelena hobeto ezagutzeko. Biharamunean denon artean komentatuko duzue ikasitakoa.

**Bidegileak bildumako liburuxkak lantzeko balio dezakeen irakurketarako tresna**

	<i>Bidegileak: 24 karpeta / Polixene Trabudua</i> http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/24%20TRA_BUDUA.pdf
Jaio (noiz):	
Jaio (non):	
Gurasoak eta gertuko familia:	
Hautzaroa:	
Gaztaroa	
Ikasketak:	
Zein lanetan jardun zuen:	
Familia:	
Euskararen zein arlotan nabarmendu zen:	
Bizitza ezaugarritutakoak:	
Kontu xelebreak:	
Internetek zer dio gure pertsoniaz: <i>bila ezazu interneten eta ekarri hona interesgarri begitandu zaizkizun loturak</i>	



3 EUSKARAREN BANAKOTASUNA

A

Swadesh zerrenda

1 Irakurri ondoko testu hau



Swadesh zerrenda oinarrizko berbak biltzen dituen zerrenda bat da (207 berba bertsio luzeenean), **Morris Swadesh** (1909-1967) hizkuntzalariak paratu zuena. Harremana ei duten bi edo hizkuntza gehiagoren arteko alderatzea ahalbideratzen du, euren arteko lotura denboran zehar nolakoa izan den balioetsiz. Hizkuntzalaritza konparatiboaren, [glotokronologiaren](#) eta hizkuntzalaritza estatistikoaren tresnetako bat da.

Erkaketa horrek antzekotasunak agerian lagako ditu, beti ere erabilitako erreperitorioak fidatzeko inferentziak eragiten baditu. Hori berori izan zen Swadeshen kezka nagusia zerrenda proposatu zuenean. Denborak baino kontrolpean ez dauden hainbat eraldaketak gauzatu ohi dute hizkuntza baten lexikoaren bilakaera. Kulturazko arazoiek eragiten dituzte transformazio horiek: teknologiaren hedapenak, politikak bultzatutako aldi aldiko dinamikek eta harreman ekonomikoek.

Swadeshen zerrendak arazoibide hau zuen sustraizko: *Oinarrizko Hiztegi* bat bada, berbategi egonkor bat, kultur aldaketek itxuraldatuko ez dutena. Beraz zerrenda horrek kanpo utzi behar zituen kulturazko kontzeptuak eta baliozkoa behar zuen izan edozein lekutarako eta hizkuntzatarako. Adibidez *elur* berbak ez du baliorik izango Afrika erdialdeko hizkuntza tropikalak alderatzeko, ezta *telebista* hitzak greko klasikoa eta modernoa erkatzeko ere.

Aukeratutako berbak edozein kulturatan ezagunak dira (hona adibideak: *ura*, *harria*, *emakumea*,...). Kanpoko mailegu batek nekez ordezkatuko ditu, hain dira oinarrizkoak.

2 Jarri taldean eta ekin ondokoari:

- **Morris Swadesh**en zerrenda hori zein berbak osatzen duten asmatzen saiatuko zarete. Swadeshen jatorrizko zerrenda ingelesez dator. Beraz lan bikoitza aurrean duzuen. Bost minutuan 25 berba asmatzen saiatuko zarete, euskarazkoa eta ingelesezkoa proposatuz. Ea zein taldek puntu gehien lortzen duen (asmatutako berba bakoitzeko puntu bat). Gogoan izan testuan jasotako azalpena, hau da, zerrenda-gai izateko hitzak bete behar dituen ezaugarriak.



3 Txapelketaren emaitzak egiaztatzeko aztertu zerrenda osoa:

http://eu.wikipedia.org/wiki/Swadesh_zerrenda

Swadesh zerrenda

4 Jardun batera ondoko eginkizunean:

- Antzinako pentsaeraren adierazpide den zerrenda honetan **kategoria** asko eta asko biltzen direla ohartu ahal gara: adibiderako familia harremanak adierazten dituzten berbak, edota anatomiarekin zerikusia dutenak. Gaikako irizpidez bestera, hizkuntzari ere erreparatu ahal diogu: aditzei kasu. Saiatu ahalik eta kategoria gehien zerrendatzen, antzinako mundu hori hobeto ezagutzeko.

5 Luzapena:

http://en.wiktionary.org/wiki/Category:Swadesh_lists

Helbide honetan mundu zabaleko hizkuntzen 'Swadesh' zerrenda asko eta asko daude. Euskarazkoa gogoan edozein zerrendarekin alderatu, ea inongo loturarik asmatzen duzuen: adibidez, georgierazkoa helbide honetan da:

http://en.wiktionary.org/wiki/Transwiki:Georgian_language/Swadesh_list



B Geneak, herriak eta hizkuntzak

Testua entzundakoan ahoz berreraikitzeari ekingo diozue, proposatutako terminoak lagun. Bigarren entzunaldi batean binaka kontrastatutakoa konfirmatuko duzue. Azkenik, denon artean komentatu Cavalli-Sforzaren ekarpena zertan den.

- Entzun arretaz 'Geneak' deritzon grabazioa eta saiatu ezaugarritzen Cavalli-Sforzaren ekarpena. Laguntzarako erabili ondoko irizpideak:





5 EUSKARA BAT ALA GEHIAGO

A  Arratsaldekoa Dokuteka Entzungaiak / 4075 / 2003/10/24 0:00:37



▪ Jar zaitetze hirunakako taldetan. Ondokoak komentatu:

- Zer da hizkuntza estandarra? Beharrezkoa ote? Zertarako?
- Zerk egiten ditu berezi euskalkiak?
- Euskalkia ala euskara batua? Zein noiz eta zertarako?

▪ Entzun grabazioa eta jaso ahoskatze-modu guztiak.

- Osteko komentarioak: aniztasun horrek aberatsago egiten du euskara? Estandarra lehenetsi behar dugu?

<http://www.argia.com/mendea/hemero/83king.htm>



6 BESTE HIZKUNTZEKIN USTEZKO SENIDETASUNAK



Euskaldunak eta Babel

Dokuteka **Entzungaiak**

2026 2001/10/23 0:07:22

Babelgo mitoarekin eta orokorrago Biblian azaltzen diren mitoekin euskaldunak egin dituzten interpretazio bitxiak azaltzen ditu Ramon Artano historiagileak.

- Juan de Perocheguik 1760an argitara eman zuen *Origen de la nación vascongada y su lengua* eta Aita Larramendiren ekarpenak ditu hizpide Ramon Artanok elkarrizketa honetan, euskararen jatorriaren inguruan haiek azaldutakoak hain zuzen ere.
- Entzun ahala jaso zertan diren bi idazle horien jarrerak eta bereziki Perocheguik honako berba hauen inguruan proposatutako interpretazioak. Entzun aurretik egin, dena den, zure hipotesia:
 - ⌘ Euskara
 - ⌘ Languedoc
 - ⌘ Tutera / Tudela
 - ⌘ Asia

**8 EUSKARAK JASAN DITUEN ERAGINAK**

A

Euskara eta latina

- Argi dago latinak sakon eragin ziola euskarari, batez ere hiztegian. Eta lekuko egun bizirik ditugun latinetik eratorritako maileguak. Egiozu une batean: zenbat berba datorkizu gogora latinetik etorriak direlakoan? Adib.: LEGE...
- Jarraian, eman dituzuen horiek gaika sailkatzen saiatu. Hona irizpideak:

Lege eta administrazioa	Kontzeptu abstraktuak	Merkataritza	Irakaskuntza
Janzkera	Tresneria	Nekazaritza	Etxegintza
Jan-edana	Mitologia	Denbora-kontzeptuak	Dotrina



10 DIALEKTOAK EDO EUSKALKIAK



Euskalkien mapa berria

Dokuteka Entzungaiak 5731 2004/12/01 0:07:37

Sakontzeko:

http://www.hiru.com/euskara/euskara_00650.html



13 EUSKALDUNAK ERBESTEAN



Euskaran oinarritutako pidgin hizkuntzak Dokuteka Entzungaiak 294558 2006/04/27 00:13:18

Itziar Laka hizkuntzalariaren azalpenak pidgin hizkuntzen inguruan. Euskara bera ere horrela erabili izan omen zen garai batzutan, arrantzaleek eta merkatariek erabilitako pidgin horren arrasto batzuk gorde izan dira. Horien adibide batzuk ere ematen ditu.

Komentatu ondoko hauek grabazioa entzun aurretik:

- **Non ibili gara euskaldunok mundu zabalean?**
- **Euskara Euskal Herria ez den beste inon hitz egin da edo hitz egiten da?**
- **Antzerki saioa duzue. Ondoko egoerak antzeztu talde txikian:**
 - Tarzan eta Jane zarete. Zer bazkaldu gaurkoan erabaki behar duzue.
 - Hiru urteko ume txikia da zuetako bat. Gurasoekin berbetan da eta haiek oparia egitea nahi du.
 - Atzerrian zaudete, Polonian kasu, eta denda batean zer edo zer erosi nahi duzue.



Helbide elektroniko en aurkibidea



HIZKUNTZA TXIKIEN DESAGERPENA:

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=26288>

HIZKUNTZAK MUNDUAN:

<http://www.amarauna-languages.com>

HIZKUNTZAREN LANKETA: ehunekoak

http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1087831918

BIDEGILEAK: 24 KARPETA / POLIXENE TRABUDUA:

http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/24%20TRABUDUA.pdf

SWADESH ZERRENDA:

http://eu.wikipedia.org/wiki/Swadesh_zerrenda

HELBIDE HONETAN MUNDU ZABALEKO HIZKUNTZEN 'SWADESH' ZERRENDA ASKO ETA ASKO DAUDE:

http://en.wiktionary.org/wiki/Category:Swadesh_lists

GEORGIERAZKOA HELBIDE HONETAN DA:

http://en.wiktionary.org/wiki/Transwiki:Georgian_language/Swadesh_list

GENEAK, HERRIAK ETA HIZKUNTZAK:

http://www.euskara.euskadi.net/AVComun/r01gBideoak/r01redirVideo.html?r01video=contenidos/informacion/eu_mintzagai_bild_uma_eugeo/eu_eu_geo/adjuntos/geneak.wmv



ARRATSALDEKOA

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=29075>



EUSKALDUNAK ETA BABEL

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=27026>



EUSKALKIEN MAPA BERRIA

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=30731>

EUSKALKIEN INGURUAN SAKONTZEKO:

http://www.hiru.com/euskara/euskara_00650.html



EUSKARAN OINARRITUTAKO PIDGIN HIZKUNTZAK

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/portal/media-type/html/language/eu/user/anon/page/materialdidacticodetalle?gid=294558>